

## V ENCUENTRO DE LA RED DE EDUCADORAS Y EDUCADORES PARA LA SOLIDARIDAD DE ALBOAN

### ALBOANEN ELKARTASUNAREN ALDEKO IRAKASLE SAREAREN V. TOPAKETA

Txostena



Urduña, 2018ko martxo

**HEZKUNTZA BERRIKUNTZA  
ETA GAZTEEN PARTE HARTZEA:  
HEZKUNTZA ERALDATZAILE BATERAKO OINARRIAK.**



URDUÑA, 2018ko martxoak 16, 17 eta 18

**ALBOANen Elkartasunaren aldeko EDUKALBOAN Irakasle Sarearen V. Topaketak** sareko ikastetxe eta erakundeetako 40 ordezkari baino gehiago elkartu zituen.

Esperientziak elkarrekin partekatzeko eta eguneroko heziketa-lanari begiratu pertsonal eta kolektibo bat egiteko proposamen egokia iruditu zitzairen irakasleei topagunea.




Denetarik egin genuen bi egun horietan; besteak beste, zenbait hitzaldi eta bisitalditan hartu genuen parte, eta gure heziketa-jardunean aurrera egitera bultzatzen gaituzten hainbat lekukotasun jaso.

**Ostiral-gauean** elkarrekin afaldu genuen, eta GAZTE-SAREAK antolatutako ekitaldiaz gozatu.



**Larunbatean** ekin genion lanari: **ALBOANeko Mary Tere Guzmán**ek egin zuen **ongietorri-hitzaldia**, eta bi egunez jorratuko genituen gaiak azaldu zizkigun, laburki.

Gero, talde dinamikoak eratu genituen, denon artean "puzzle bateratu" bat osatzeko eta **heziketa eraldatzaile bat lortzeko zenbait ekarpen egiteko.**



*"Aktibatu"*

*"Bestelako mundu bat antola daitekeela sinestea"*

*"Aniztasuna"*

*"Ilusioa"*

*"Alaitasunez eraikitzea"*

*"Norberaren alderdirik onenak kanporatzea"*

**Pepe Menéndez:**  
***Nola eutsi aldaketari? Helburuak, giltzarriak eta tresnak.***

Ondoren, **Pepe Menéndezekin** jardun ginen. Irakaslea da Menéndez, komunikatzailea; grina bizia du hezkuntzarekiko, eta aholkularia da heziketaren eraldaketa-prozesu sakonetan. Heziketa eraldatzeko *Horitzó 2020* proiektua sortzen, diseinatzen eta sustatzen lagundu zuen.

Bera izan genuen hizlari larunbat-goizean, bi gai hauen inguruan: zergatik berritu behar den, eta nolakoak diren aldaketa-prozesuak.

**Nola ikusten duzue hezkuntza? Zein da eraldaketaren, aldaketaren ekosistema? Zein dira ekosistema horren funtsezko elementuak?**





"Hona zer den berrikuntza: munduari, batez ere pertsoneri, beste era batera begiratzea".

Taldeka egin genuen lan, marrazkien bidez adierazteko hezkuntzaren



ezaugarriak eta elementuak.


Eskolan eman genituen lehen urteak eta orduko sentipenak gogorarazi zizkigun Peppek, eta gogoeta eginarazi zigun ordutik hona hezkuntzak izan duen aldaketaz. Ondorioztatu genuen baietz, aldaketa txiki batzuk izan direla, baina ez dela aldatu irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren funtsa.

Ondoren, "**Hezkuntzaren eraldaketa**" gaiari ekin zion, eta eraldaketa horrek nolakoa izan behar duen jardun zen, bere gogoetak gurekin partekatuz:

- ✓ Aldaketa ez da teknikoa, baizik eta kulturala; pertsonen ikuspegia aldatu behar da.
- ✓ Berrikuntza da nahi dugun hezkuntza lortzeko behar dugun tresna.

- ✓ Gauza desberdinak dira egin nahi duguna eta lortu nahi duguna.
- ✓ Eraldatzea konpromiso bat da.
- ✓ XXI. mendeko eskolaren ardatza ez da teknologia, baizik eta pertsonen bizitza-proiektuak, eta herritartasuna eraikitzeko asmo sendoa.
- ✓ Aldaketarako ekosistema: eskola-sistemaren ardatz nagusien eraldaketa sistemiko bat da xedea. Hiru erreferentzia nagusi: bizi-proiektua, ikuspegi integratzailea eta gizarte-eraldaketa.

Gizarte-eraldaketa



### Sabrina Burgos:

***Berrikuntza eta partaidetza soziala. Nola lagundu gazteei emantzipazio eta eraldaketa sozialeko prozesuetan.***



### Arratsaldean,

berriz, Kolonbiako Fe y Alegríako Sabrina Burgos izan genuen hizlari, eta **Fe y Alegríak gizarte-partaidetzaz bultzatzen dituen trebakuntza-prozesuez jardun zitzaigun**. Azaldu zigun, besteak beste, zer aldaketa sakon eta berritzaile ari diren egiten Fe y Alegrían tokiko eta nazioarteko testuinguru sozial berrira egokitzeko.

- ✓ **Gizartean eragiteko eraldatu behar dugu.**



- ✓ **Aldaketa-garaia bizi du herrialdeak, eta testuinguruak berritzaile izatera bultzatzen zaitu.**
  - ✓ **XEDEA aldatu behar da testuingurua aldatzean.**
  - ✓ **Sakon aldatu behar dugu garen hori, egiten dugun hori.**

- ✓ Estrategia aldatzeak berekin ekarri du egitura ere aldatzea.

## Berrikuntza- eta partaidetza-esperientzia batzuk:

Arratsaldean, . Hiru erakundek/ikastetxek beren eskoletan antolatzen eta martxan jartzen dituzten partaidetza-esperientzia zehatz batzuk aurkeztu zizkiguten. Desberdinak ziren hiru esperientziak, baina erkide zituzten Hezkuntza Eraldatzailearen Aldeko eta Herritartasun Globalerako Mugimenduaren ezaugarriak.

- ✍ Lehenbiziko esperientzia partekatua **Iruñeko San Ignazio Ikastetxekoa (jesuitak)** izan zen. Pilar Pérez eta Gonzalo Fernández Jarne ikastetxeko **Aste Solidarioa** zela-eta egin zuten sistematizazio- eta gogoeta-prozesu interesgarriaz jardun zitzaizkigun. Hezkuntza-komunitate osoa engaiatu zuten esperientzia hartara.
- ✍ Bigarren esperientzia, berriz, PROIEKTUKAKO lana sustatzen ari den **Gasteizko EGIBIDE** ikastetxeko Hegoi Urcelayk azaldu zuen. Eskola horretan **KULTURA-ARTEKOTASUNAZ** duten ikuspegi berritzaileaz eta partaidetzazkoaz mintzatu zitzaigun Hodei.
- ✍ Jarraian, Gasteizko **EL CAMPILLO** aisialdiko taldearen txanda izan zen. Andrea Salinasek gazteak partaidetzara eta konpromisora bultzatzeko proiektuen eta jardueren berri eman zigun. Gazteak, herritar berri gisara, eguneroko bizimoduan, beren inguruko eginkizunetan, ALBOANen laguntzaile aktibo gisara zenbait ekimenekin duten konpromisoan... nola jarduten diren kontatu zigun.



## Zer eraldaketa-elementu- edo -ezaugarri ikusi duzu esperientzia horietako bakoitzean? Horietako zein ditu zure ikastetxeak?

Esperientzien aurkezpenaren ondoren, **ikastetxe eraldatzaileek bereizgarri** dituzten ezaugarriak aztertzen jardun ginen. Gogoratu genuen **ALBOAN, HEZKUNTZA ERALDATZAILEAREN ETA HERRITARTASUN GLOBALAREN ALDEKO MUGIMENDUA**, Entreculturas, Oxfam Intermon eta InteRed jorratzen ari garen proposamena.

Planteamendua: onartzea prozesu hori martxan dagoela jada, hortik abiatu eta bide horretatik aurrera jotzeko, mundua eraldatzeko hezkuntza eraldatzaile horren bila.



Eguna amaitzeko, Kolonbiako Fe y Alegríako gazte-taldearen lekukotasunak entzun genituen. Beren motibazioez mintzatu zitzaizkigun gazteak, hango egoeraz duten ikuspegiak, ingurua aldarazteko duten premia eta gogoaz...



Igande-goizean, berriz, Javier Mielgorekin jardun ginen. ALBOANen migrazioari eta laguntzari buruzko **Mugetatik haratago** proposamen pedagogikoa aurkeztu zigun Mielgok.



Heziketa-proposamen interesgarri horretan, behartutako erbesteratze-prozesuei eta babesari buruzko gogoeta eta ezagutza jorratzen dira. Hiru alderdi hauek osatzen dute proposamena:

Hamahiru edo hamalau urtetik gorako 20 edo 50 laguneko taldeentzako dira proposamenak, eta Loiolan egingo diren bi eguneko egonaldietan landuko dira.

**Ondoren, María Lezaunek Parte Hartzearen Bidea** proiektua aurkeztu zigun. Hezkuntza formalean eta ez-formalean gizarte-eraldaketako prozesuetan herritarrek parte hartzeko ahalmenak sendotzea du helburu proiektu horrek, herritartasun globala, genero-berdintasuna eta kultura-integrazioa ikuspegi direla. Hiru alor hauek jorratzen dira:





Irakasleentzako gogoeta-eta trebakuntza-gune horrek aukera ematen du ezagutzak eta esperientziak trukatzeko; horrez gain, eraikuntza kolektiboko prozesu bat ere bada, eta gazteek eraldaketa-prozesuan laguntzea du xede.

- ✓ Euskadiko ikastetxeetako 10na irakasleko taldeentzako.
- ✓ 2018ko jardueren aurkezpen-saioa eta beste sei saio 2018-2019 ikasturtean.
- ✓ Edukalboan sarearen asteburuko topaketan parte hartzea.



Gero,  
personal  
genien:

ebaluazioan, galdera  
batzuei erantzun



*Zer ikasi dut nik, maila pertsonalean, hezkuntza eraldatzaile baten aldeko konpromisoari eusten laguntzen didanik?*

- "Partaidetza sustatzen duten hezkuntza-proiektuak".
- "Neska-mutikoak ahalduntzea, beren heziketaren 'arduradun' egin daitezen". "Beren proiektuen jabe eta errealitatearen partaide egitea gazteak..."

*Zer beharko zenuke hezkuntza eraldatzaile baterantz aurrera jarraitzeko?*

- "Autoebaluazioa, autodiagnostikoa eta ekintza".
- "Irakasleen trebakuntzaren eta lankidetzaren jarraipena egiten duen taldearen laguntza".
- Etengabeko trebakuntza, babes- eta zaintza-taldea, norberaren eta besteen ezagutza.





Zer ekimen errealista eta zehatz jar daitezke martxan nire ikastetxean topagunean aztertutakoa dela eta?

- "Eraldatzeko, garen hori abiapuntu hartu"
- "Mugimendua: heziketa eraldatzailea ere zalantzan jarri behar da, mugitu, eraldatu".
- "Aniztasuna aberastasuntzat jo behar da".

## Topaketa amaitzeko, han partekatu

genuen guztiaren laburpena egin genuen: hitzaldi iradokitzaileak, hain beharrezkoak ditugun eskola eraldatzaile horiek eraikitzen jarraitzeko, eta partekatu genituen lekukotasunak, zeinek sinetsarazi baitziguten gure gazteen partaidetza aktiboa susta daitekeela.

Azkenik, eskatu ziguten hitz batekin laburtzeko topagunean bizi eta partekatutako guztiak gutako bakoitzari utzitako "aztarna".



## *Datorren urteko Edukalboanen berriro ikusiko dugu elkar!*

Ez bazaude erregistratuta **ALBOANen** elkartasunaren aldeko irakasleen **EDUKALBOAN** sarean, sartu gure webgunean eta eman izena:

<http://edukalboan.alboan.org/>